



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

Kirol sustapenerako diru-laguntzen emakida arautzen duen Ordenantza

Kirol sustapenerako laguntzen gaineko Udal Araudia

I.- Xedea

Berangoko Udalak araudi hau ezartzen du, Berangoko Udalerrian erroldatuta egon eta Getxoko Fadura edo Sopelako udal kiroldegietako urtebeterako abonamenduaren (familia zein banakakoak) titularrei diru-laguntzak emateko prozedura eta printzipio orokor eta partikularrak zehazteko xedez. Horrela, bada, ez dira diruz lagunduko, Getxoko kiroldegiari dagokionez, urtebetekoa baino iraupen laburragoa duten abonamenduak edo aribideko urtekoak ez direnak, eta, Sopelako kiroldegiari dagokionez, urtebetekoa baino iraupen laburragoa duten abonamenduak edo aurreko urtekoak ez direnak.

II. Aurrekontu aurreikuspena.-

Udalak diru laguntzak emateko aurrekontu partida bat zabalduko du urtero. Diru laguntzon esleipenerako baldintza izango dira ebazpenaren unean nahikoa kreditu izatea eta Udal Kiroldegia eraikitzeke lanak hasi barik egotea.

III. Diru laguntzen zenbatekoa.-

Diru laguntzen zenbatekoa Getxoko edo Sopelako abonamendudunen kuotaren zenbateko berebean jartzen da, xedea, bai familia-abonamenduei bai banakakoei dagokienez, Berangon erroldatutako herritarrek Getxon edo Sopelan erroldatutakoek duten kuota berbera izatea delako.

IV. Diru laguntzak emateko oinarrizko arauak.-

- 1.- Diru laguntzak ematea Alkate jn./and.aren eskumena da.
- 2.- Emandako diru laguntzak ez daitezke aurrerakintzat har.
- 3.- Ez daiteke eska diru laguntzaren handitze edo berrikustapena.
- 4.- Aipatutako kiroldegira joateko garraioa ez da diruz lagunduko.

V. Eskatzaileak.-

Berangoko Udalerrian erroldatuta egonda, Getxoko Fadura edo Sopelako Udal Kiroldegiako familia zein banakako abonamenduaren titular diren guztiek eskatu ahal izango dute diru laguntza.

VI. Eskaeren aurkezpena.-



**BERANGOKO UDALA
BIZKAIA**

Diru laguntzarako eskaerak Udalbatzako Alkate jn./and.ari zuzendutako eskaera orri ofizialean aurkeztu behar dira, ondoren zerrendatzen diren agiriekin batera:

1. Abonamendua ordaindu izanaren ziurtagiria edo fakturaren kopia.
2. Familia-abonamenduaren kasuan, Familia-liburuaren fotokopia.
3. Familiaren edo norbanakoaren erroldatze-ziurtagiria.

Aurkeztutako dokumentazioa urri edo ez-osotzat hartuko balitz, Udal honek berarentzat gordetzen du ziurtagiri gehiago eskatzeko eskubidea, kasuan-kasuan, interesatu bakoitzaren ezaugarrien arabera zehaztuko liratekeenak.

VII. Onarpena.-

Urteko lehen hiruhilekoan aurkeztuko dira eskaerak. Eskaera aurkeztu eta hilabeteko epean jakinaraziko da eskaera onartu edo atzera bota den.